

ATZERRITARRAK EAE-N 2008

Laburpen honetan, 2007ko abuztuaren egindako 17. laburpeneko edukia eguneratuko dugu. Txosten hartan atzerritarrak errol-datueaz 2007ko urtarrilaren 1eko datuak jaso ziren. Oraingoan, EAE-n 2008ko urtarrilaren batean errol-datutako biztanleria aztertuko dugu, Estatistikako Institutu Nazionalak egindako behin-behineko aurrerapenari jarraituta. Atzerritarren bilakaera azken urteetan eta jenderik gehieneko sorleku eta nazionalitateak aztertuko ditugu batez ere.

1. Biztanleen udal-errola. Ikuspegi orokorra

1. taula. EAEko atzerritarrak, sexuaren eta lurraldearen arabera. 2005-2008

	2005					2007					2008				
	Guztira		Gizonezkoak		Emakumezkoak	Guztira		Gizonezkoak		Emakumezkoak	Guztira		Gizonezkoak		Emakumezkoak
	K	%	K	%	K	K	%	K	%	K	K	%	K	%	
Espainia	3.730.610	1.992.034	53,40	1.738.576	46,6	4.519.554	2.395.685	53,0	2.123.869	47,0	5.220.577	2.777.003	53,2	2.443.574	46,81
EAE	72.894	37.383	51,28	35.511	48,7	98.524	49.816	50,6	48.708	49,4	116.650	59.989	51,4	56.661	48,57
Araba	15.141	8.316	54,92	6.825	45,1	19.392	10.498	54,1	8.894	45,9	22.734	12.509	55,0	10.225	44,98
Gipuzkoa	21.536	11.092	51,50	10.444	48,5	29.040	14.913	51,4	14.127	48,6	35.786	18.634	52,1	17.152	47,93
Bizkaia	36.217	17.975	49,63	18.242	50,4	50.092	24.405	48,7	25.687	51,3	58.130	28.846	49,6	29.284	50,38

Iturria: EInko datuak.

2005 eta 2008 bitartean Euskal Autonomi Erkidegoan errol-datutako atzerritarrak %60 hazi dira. 2005ean Euskadin 72.894 immigrante bizi ziren; 2008ko urtarrilaren 1ean errol-datutako atzerritarrak 116.650 dira. Azken urtean, atzerritarrak %19 ugartu dira (1 taula).

1998tik 2008ra, bertako herritarrak 44.534 gutxitu dira. Baina, denbora tarte berean, Euskadiko biztanleriak 56.918 pertsona gehiago ditu, atzerriko nazionalitateko 101.452 pertsona etorri direlako. Hau da, bertako biztanleriaren jaisiera berdindu eta gehitu egin da atzerrikoen bitartez.

Immigranteen hazkunde horrek biztanleria osoaren barruan gero eta pisu handiagoa hartzen doazela erakusten du. 1. grafikoan eta 2. taulan ikusten denez, 2008an EAE-n biztanleria atzerritarra %5,4koa zen, eta Espainian %11,3koa. 1998an atzerritarrak Espainian %1,6 ziren eta EAE-n %0,7.

Lurralde historikoei begira, Bizkaia da orain ere atzerritar gehien hartzen duen probintzia, erdia ia, 58.130 (%49,8) atzerritar guztira. Hurrengo Gipuzkoa (%30,7) eta ondoren Araba (%19,5), 35.786 eta 22.734 erroldatu bakoitzak, hurrenez hurren (2 grafikoak).

Hala ere, Arabak dauka immigrazio-portzentajerik handiena, %7,3, Bizkaia eta Gipuzkoak %5,1 dute eta. Laburbilduz, Bizkaian bizi da EAEko atzerritarren erdia eta Araba da immigrazio-portzentajerik handiena duen lurralde historikoa. Araba ia-ia bide erdian dago erkidegoko batez bestekoaren eta estatuko batez bestekoaren artean.


EAEko atzerritarrak ia-ia erdiz erdi banatzen dira sexuaren arabera: %51,4 gizonak dira eta %48,6 emakumeak. Sexu-banaketa hori apur bat emakumeen aldekoagoa da EAE-n Espainian baino, %53,2 gizonak eta %46,8 emakumeak baitira han. Era berean, lurralde historikoetan aldaera txiki batzuk daude: Araban (%55) eta Gipuzkoan (%52,1) gehiengo gizonak dira. Bizkaian emakumeak apur gehitxoago dira, %50,4 emakumeak dira eta %49,6 gizonak.

2. Nazionalitateak

EAE-n errol-datutako atzerritarren nazionalitateari erreparatuz gero, ikusiko dugu latinoamerikarrak direla nagusi oraindik

1. grafikoa

Atzerritarren bilakaera ehunekoetan, lurralde historikoaren arabera. 1998-2008



Iturria: EInko datuak.

2. taula. Bertako eta atzerriko biztanleriaren bilakaera EAEn. Atzerritarren ehunekoak EAEn eta Espainian. 1998-2008

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
EAEko biztanleak	2.098.628	2.100.441	2.098.596	2.101.478	2.108.281	2.112.204	2.115.279	2.124.846	2.133.684	2.141.860	2.155.546
Bertako biztanleak	2.083.430	2.083.648	2.077.456	2.074.040	2.069.873	2.062.973	2.056.113	2.051.952	2.048.142	2.043.336	2.038.896
Biztanle atzerritarrak	15.198	16.794	21.140	27.438	38.408	49.231	59.166	72.894	85.542	98.524	116.650
EAEko atzerritarren %	0,72	0,8	1,01	1,31	1,82	2,33	2,8	3,43	4,0	4,6	5,4
Espainiako atzerritarren %	1,6	1,86	2,28	3,33	4,73	6,24	7,02	8,46	9,2	9,9	11,3

Iturria: EInko datuak.

ere, EAEn bizi diren pertsona atzerritarren ia erdia baitira, %46,7. Latinoamerikarrak bolumenean hazi egin dira eta ekarpen-portzentajearen ere 2003tik, baina aurreko urteetakoaren aldean pisu erlatibo galduta, 2006 eta 2007an adibidez immigranteen %48,3 ziren. Iparramerikar -Kanada eta Estatu Batuak- bere ekarpenari eutsi egin dio, %1 inguruan.

Hurrengo europarrak datoz, 2003koaren aldean hazi egin dira, baina Europar Batasunekoek gero eta pisu handiagoa dute, 2007ko urtarrilaren 1etik erregimen horretara sartu direlako errumaniarrak eta bulgariarrak. Gainera, Errumania nazionalitate indartsuena bihurtu da EAEn. Ondorioz, aldaketa politiko horiek eraginda, europarren artean barruko berrantolaketak administratiboa gertatu da. Batasunaz kanpoko europarrak 2006an %11 baziren 2008an %2,9 dira, Europar Batasunaren alde (ikus 3. eta 4. taulak).

Lurralde historikoei begiratuta, 2008ko urtarrilaren 1ean europarren pisua handia zen Gipuzkoan, %38,9 (3 taula). Araban, aldez, %27,2 afrikarrak ziren, magrebtarren ekarpenarengatik batez ere, %21,9 dutela EAEko batez bestekoa ia-ia bikoiztu egiten dute eta (%11,8). Bizkaian europarrak eta magrebtarrak gutxiago dira. Lurralde horretan latinoamerikarrak atzerritarren erdia baino gehiago dira, %52,5 zehatz esanda.

Iparramerika eta Ozeaniako biztanleen kopuruak pixka bat atzera egin du, baina horiek izan ezik, gainerako nazionalitate-multzoak hazi egin dira 2003 eta 2008 bitartean. Afrikako jatorria duten atzerritarrak %123,3 ugartu dira, asiarrak % 149,3, eta latinoamerikarrak %240,5. Zenbaki

4. taula. Atzerritarren bilakaera EAE, jatorri nagusien arabera. 2003-2008

	2003	2004	2005	2006	2007	2008
EB 27 handitzea	0	0	0	0	9.484	13.764
EB 25 handitzea	547	579	688	797	913	1.169
Europa 15	10.454	10.613	11.839	13.497	15.120	17.025
EB guztira	11.001	11.192	12.527	14.294	25.517	31.958
Gainerako Europa	3.180	4.852	7.044	9.439	2.824	3.401
Europa guztira	14.181	16.044	19.571	23.733	28.341	35.359
Magreb	5.961	7.441	8.877	10.292	11.623	13.765
Gainerako Afrika	3.032	2.961	4.504	4.673	5.199	6.324
Afrika guztira	8.993	11.152	13.381	14.965	16.822	20.089
AEB eta Kanada	889	867	956	920	766	802
Latinoamerika	22.657	28.327	35.054	41.293	47.558	54.506
Amerika guztira	23.546	29.104	36.010	42.213	48.324	55.308
Txina	1.340	1.558	2.120	2.530	2.810	3.258
Gainerako Asia	1.064	1.197	1.560	1.983	2.119	2.531
Asia guztira	2.404	2.755	3.680	4.513	4.929	5.789
Ozeania	102	105	120	111	93	95
Apatridak	5	6	5	7	15	10
Guztira	49.231	59.166	72.767	85.542	98.524	116.650

Iturria: EInko datuak.

3. taula. Atzerritarrak EAEn, jatorriaren arabera. 2008 urtea

	EAE		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	K	%	K	%	K	%	K	%
EB 15	17.025	14,6	3.258	14,3	7.843	21,9	5.924	10,2
EB 25	1.169	1,0	304	1,3	523	1,5	342	0,6
EB 27	13.764	11,8	1.829	8,0	4.074	11,4	7.861	13,5
Gainerako Europa	3.401	2,9	886	3,9	1.498	4,2	1.017	1,7
Europa guztira	35.359	30,3	6.277	27,6	13.938	38,9	15.144	26,1
Magreb	13.765	11,8	4.976	21,9	3.809	10,6	4.980	8,6
Gainerako Afrika	6.324	5,4	1.206	5,3	939	2,6	4.179	7,2
Afrika guztira	20.089	17,2	6.182	27,2	4.748	13,3	9.159	15,8
AEB eta Kanada	802	0,7	96	0,4	284	0,8	422	0,7
Latinoamerika	54.506	46,7	8.929	39,3	15.046	42,0	30.531	52,5
Amerika guztira	55.308	47,4	9.025	39,7	15.330	42,8	30.953	53,2
Txina	3.258	2,8	574	2,5	670	1,9	2.014	3,5
Gainerako Asia	2.531	2,2	670	2,9	1.053	2,9	808	1,4
Asia guztira	5.789	5,0	1.244	5,5	1.723	4,8	2.822	4,9
Ozeania	95	0,1	2	0,0	45	0,1	48	0,1
Apatridak	10	0,0	4	0,0	2	0,0	4	0,0
Guztira	116.650	100,0	22.734	100,0	35.786	100,0	58.130	100,0

Iturria: EInko datuak.

absolutuetan, europarrak 14.181 ziren eta 35.359 erroldatu dira orain, asiarrak lehen 2.401 eta orain 5.789, afrikarrak 8.993 lehen eta 20.089 orain eta latinoamerikarrak 22.657 lehen eta 54.506 orain.

3. Nazionalitate nagusiak


Nazionalitateka, hamar garrantzitsuenen artean, bost latinoamerikarrak dira (Kolonbia, Bolivia, Ekuador, Brasil eta Paraguay), bi Batasunekoak (Errumania eta Portugal) eta bat Asiakoa (Txina).

Errumania, 12.837 pertsona dituela, EAEko nazionalitate garrantzitsua bihurtu da lehenengoz, atzerritarren %11 baitu. 1998tik 2001era Portugal zen nazionalitate ugariena, 2002an Kolonbiak egin zuen atzerritarren ekarpenik handiena, eta hala eutsi zion 2007 arte. 2008an, Errumania bihurtu zen nazionalitate garrantzitsua; errumaniarren urte-arte hazkundea 2007tik 2008ra %47,4koa izan da. Ondoren datoz Kolonbia (12.055) eta Bolivia (11.857), biztanleriaren %10,3 eta %10,2 dutela hurrenez hurren.

Nazionalitate azaleratu berria dugu Paraguay. Lehenago Boliviak izandako immigrazio-prozesua egiten hasi da azken urteetan, 2002an 53 erroldatu zituen eta 2008an 2.998 dira. Uruguaiako herritar horietako asko, hirutik bi, Bizkaian daude.

2. grafikoa.


Atzerritarrek EAEn, jatorriaren arabera. 2003-2008



Iturria: EInko datuak.

3. grafikoa.

EAEko hamar jatorri nagusien bilakaera. 2003-2008 (Balio absolutuak)



Iturria: EInko datuak.

3.1. Nazionalitate nagusiak Lurraldeka

Araba

Lurraldeka, Araban nazionalitate nagusiak marokoarra eta kolonbiarra dira, osoaren %13,4 eta %12,6 dituztela 2008an, eta azken hiru urteetan %43,7 eta 34,9 hazi dira hurrenez hurren. Lurralde historiko horretan oraindik ere magrebtarrek pisu handia dute, Araban bizi diren bost atzerritarretik bat Magrebekoa da, bai Marokokoa (%13,4) bai Aljeriakoa (%7,2).

Bizkaia

Bizkaian aldetak egon dira. 2007an hasita, Bolivia da nazionalitatearik ugariena Bizkaian. Azken urteetan, 2.989 boliviarrak errolatuta edukizetik (%8,3) 9.873 pertsona izatera joan da (Bizkaiko atzerritarren %17). Portzentajetan boliviarraren pisua azken hiru urteetan %330,3 handitu da. Boliviarrak gainera, Errumaniak ere asko handitu du bere pisua, 2008an bigarren nazionalitatea bihurtu baita. 2005ean errumaniarrak 2.730 ziren, Bizkaiko atzerritarren %7,5, 2008an, aldiz, 7.600 pertsona, hau da, %13,2. Beraz, azken hiru urteetan %280,5 handitu da.

Errumaniak indar hori hartzean, Kolonbia hirugarren nazionalitatea bihurtu da garrantzian Bizkaian (%11,4), atzetik Maroko (%6,8) eta Ekuador (%5,7) dituela. Latinoamerikako nazionalitateen artean, Ekuadorrek pertsonen ekarpen absolutua gutxitzeaz gainera, immigranteen kopuru osoan pisu erlatiborik gehien galdu dutenetako bat da, 2005etik 2008ra %10,1etik %5,7ra igaro baita.

Gipuzkoa

Gipuzkoan Portugal da nazionalitatearik indartsuena 2006tik orain arte. 2008an 4.145 ziren, atzerritar guztien %11,6. 2006 eta 2007an, Ekuador zen bigarren nazionalitatea, baina 2008an laugarren izan zen (%8,3), errumaniarrak ugaritu zirelako. Azken hiru urteetan, errumaniarren taldea laukoiztu egin da Gipuzkoan, 2005ean 874 pertsona izatetik 2008an 3.569 izatera igaro dira (%10).

Amaitzeko, nazionalitateari erreparatuta lurralde batetik bestera aldeak daudela ikusten da. Nazionalitateek daukaten pisuan alde batzuk igartzen dira, beraz, aldeak azpimarratuta, Araban magrebtar gehiago daude, Gipuzkoa europarrak gehiago dira eta Bizkaian latinoamerikarrak.

5. taula. EAEn errolatutako atzerritarrek, jatorri nagusien arabera. 1998-2008

	1998		2002		2005		2008				
	K	%	K	%	K	%	K	%			
Guztira	15.198	100	38.408	100	72.894	100	116.650	100			
Portugal	3.241	21,3	Kolonbia	6.466	16,8	Kolonbia	10.208	14,0	Errumania	12.837	11,0
Maroko	1.615	10,6	Portugal	4.317	11,2	Ekuador	7.620	10,5	Kolonbia	12.055	10,3
Frantzia	1.130	7,4	Maroko	3.742	9,7	Maroko	6.754	9,3	Bolivia	11.857	10,2
Alemania	813	5,3	Ekuador	2.819	7,3	Portugal	5.307	7,3	Maroko	10.156	8,7
Erresuma Batua	787	5,2	Brasil	1.855	4,8	Errumania	4.253	5,8	Portugal	8.775	7,5
Kuba	529	3,5	Frantzia	1.563	4,1	Bolivia	3.484	4,8	Ekuador	7.489	6,4
AEB	513	3,4	Erresuma Batua	1.289	3,4	Brasil	3.047	4,2	Brasil	5.089	4,4
Argentina	496	3,3	Txina	1.152	3,0	Argentina	2.816	3,9	Txina	3.258	2,8
Brasil	439	2,9	Kuba	1.134	3,0	Aljeria	2.170	3,0	Aljeria	3.059	2,6
Txina	623	4,1	Alemania	1.071	2,8	Txina	2.119	2,9	Paraguai	2.988	2,6
Nagusiak guztira	10.186	67,0	Nagusiak guztira	25.408	66,2	Nagusiak guztira	47.778	65,5	Nagusiak guztira	77.563	66,5
Gainerako jatorriak	5.012	33,0	Gainerako jatorriak	13.000	33,8	Gainerako jatorriak	25.116	34,5	Gainerako jatorriak	39.087	33,5

Iturria: EInko datuak.

6. taula. Araban erroldatutako atzerritarrak, jatorri nagusien arabera. 1998-2008

	1998		2002		2005		2008				
	K	%	K	%	K	%	K	%			
Guztira	2.460	100	Guztira	8.031	100	Guztira	15.141	100	Guztira	22.734	100
Portugal	451	18,3	Kolonbia	1.228	15,3	Kolonbia	2.129	14,1	Maroko	3.047	13,4
Maroko	372	15,1	Maroko	1.039	12,9	Maroko	2.119	14,0	Kolonbia	2.873	12,6
Brasil	144	5,9	Portugal	887	11,0	Aljeria	1.286	8,5	Portugal	2.087	9,2
Erresuma Batua	114	4,6	Brasil	676	8,4	Ekuador	1.222	8,1	Aljeria	1.630	7,2
Alemania	113	4,6	Aljeria	630	7,8	Portugal	1.138	7,5	Errumania	1.608	7,1
Aljeria	102	4,1	Ekuador	494	6,2	Brasil	789	5,2	Ekuador	1.223	5,4
Kuba	96	3,9	Errumania	218	2,7	Errumania	649	4,3	Brasil	1.080	4,8
Frantzia	90	3,7	Alemania	216	2,7	Txina	428	2,8	Paraguai	703	3,1
Txina	84	3,4	Kuba	187	2,3	Argentina	418	2,8	Bolivia	618	2,7
Italia	68	2,8	Txina	178	2,2	Nigeria	291	1,9	Txina	574	2,5
Nagusiak guztira	1.634	66,4	Nagusiak guztira	5.753	71,6	Nagusiak guztira	10.469	69,1	Nagusiak guztira	15.443	67,9
Gainerako jatorriak	826	33,6	Gainerako jatorriak	2.278	28,4	Gainerako jatorriak	4.672	30,9	Gainerako jatorriak	7.291	32,1

Iturria: EInko datuak.

7. taula. Bizkaian erroldatutako atzerritarrak, jatorri nagusien arabera. 1998-2008

	1998		2002		2005		2008				
	K	%	K	%	K	%	K	%			
Guztira	7.437	100	Guztira	18.661	100	Guztira	36.217	100	Guztira	58.130	100
Portugal	1.116	15,0	Kolonbia	4.221	22,6	Kolonbia	6.322	17,5	Bolivia	9.873	17,0
Maroko	655	8,8	Maroko	1.511	8,1	Ekuador	3.660	10,1	Errumania	7.660	13,2
Frantzia	511	6,9	Ekuador	1.417	7,6	Bolivia	2.989	8,3	Kolonbia	6.646	11,4
Erresuma Batua	438	5,9	Portugal	1.310	7,0	Errumania	2.730	7,5	Maroko	3.942	6,8
Alemania	409	5,5	Brasil	868	4,7	Maroko	2.646	7,3	Ekuador	3.294	5,7
AEB	347	4,7	Txina	750	4,0	Portugal	1.621	4,5	Brasil	2.654	4,6
Kuba	295	4,0	Erresuma Batua	607	3,3	Brasil	1.575	4,3	Portugal	2.543	4,4
Venezuela	264	3,5	Kuba	554	3,0	Txina	1.361	3,8	Paraguai	2.099	3,6
Argentina	256	3,4	Frantzia	523	2,8	Argentina	1.123	3,1	Txina	2.014	3,5
Txina	247	3,3	Alemania	477	2,6	Senegal	720	2,0	Senegal	1.217	2,1
Nagusiak guztira	4.538	61,0	Nagusiak guztira	12.238	65,6	Nagusiak guztira	24.747	68,3	Nagusiak guztira	41.942	72,2
Gainerako jatorriak	2.899	39,0	Gainerako jatorriak	6.423	34,4	Gainerako jatorriak	11.470	31,7	Gainerako jatorriak	16.188	27,8

Iturria: EInko datuak.

8. taula. Gipuzkoan erroldatutako atzerritarrak, jatorri nagusien arabera. 1998-2008

	1998		2002		2005		2008				
	K	%	K	%	K	%	K	%			
Guztira	5.301	100,0	Guztira	11.716	100,0	Guztira	21.536	100,0	Guztira	35.786	100,0
Portugal	1.674	31,6	Portugal	2.120	18,1	Ekuador	2.738	12,7	Portugal	4.145	11,6
Maroko	588	11,1	Maroko	1.192	10,2	Portugal	2.548	11,8	Errumania	3.569	10,0
Frantzia	529	10,0	Kolonbia	1.017	8,7	Portugal	1.989	9,2	Maroko	3.167	8,8
Alemania	291	5,5	Ekuador	908	7,8	Maroko	1.757	8,2	Ekuador	2.972	8,3
Erresuma Batua	235	4,4	Frantzia	864	7,4	Argentina	1.275	5,9	Kolonbia	2.536	7,1
Argentina	179	3,4	Erresuma Batua	505	4,3	Frantzia	1.024	4,8	Argentina	1.398	3,9
Italia	152	2,9	Argentina	395	3,4	Errumania	874	4,1	Bolivia	1.366	3,8
Kuba	138	2,6	Kuba	393	3,4	Brasil	683	3,2	Brasil	1.355	3,8
AEB	121	2,3	Alemania	378	3,2	Erresuma Batua	570	2,6	Frantzia	1.253	3,5
Dominikar Errepublika	107	2,0	Brasil	311	2,7	Kuba	562	2,6	Nicaragua	1.000	2,8
Nagusiak guztira	4.014	75,7	Nagusiak guztira	8.083	69,0	Nagusiak guztira	14.020	65,1	Nagusiak guztira	22.761	63,6
Gainerako jatorriak	1.287	24,3	Gainerako jatorriak	3.633	31,0	Gainerako jatorriak	7.516	34,9	Gainerako jatorriak	13.025	36,4

Iturria: EInko datuak.



EAEko immigrazioaren inguruko informazio gehiagorako kontsulta ezazu gure web orria: www.ikuspegi.org

Behatokiaren beste zerbitzu batzuk ere zure esku daude:
 - **Dokumentazio zentrua:** kontsulta zerbitzua eta liburutegi mailegua eskeintzen ditu.
 - **Informazio estatistikoa.**

Gurekin harremanetan jartzeko:

Tlf.: 94 601 82 75
 Fax: 94 402 35 40
 e-mail: info@ikuspegi.org

Postaz eta pertsonalki helbide honetan aurki gaitzakezu:
 Alameda Mazarredo 39, 4.C, 48009 Bilbo - Bizkaia